

# Sekuentzia txartelak

30-45 minutu / +3 urte

Haur guztiak borobilean jarriko ditugu eserita. Txartelak ateratzen joango gara eta sinbolo bakoitzaren esan nahiaren inguruan hitz egingo dugu.

Ondoren, txartelak ateratzen jarraituko dugu eta sinbolo bakoitza interpretatuko dugu.

Gero, hurrei txartelak emango dizkiegu bertan agertzen diren aginduak exekuta ditzaten. Bakoitzak agindu bana.

Poliki poliki, agindu segidak gehitzen joango gara. Hurrek Beebot robota direla simulatuko dute.

Amaitzeko, Beebota erdian jarri eta txarteletan agertzen diren aginduak emango dizkiogu.



Helburuak	Konpetentziak	Materiala
<ul style="list-style-type: none"><li>• Sinbologia aztertzea</li><li>• Beebot txartelen aginduak ezagutzea</li><li>• Beebot erabiltzen ikastea</li></ul>	<p><b>Diziplina baitakoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Hizkuntza OK1</li><li>• Matematika OK2</li></ul> <p><b>Metadiziplinarrak</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Pentsatzen ikasi OK8</li><li>• Ekimena OK9</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Beebot txartelak</li><li>• Beebot robota</li></ul>

## Aukera gehiago

1. Txartelak guk atera beharrea bikotek jolastu dezakegu. Batek txartelak atera eta besteak robotarena egingo du. Rolak txandakatu behar dira.
2. Robotaren papera egiten duen haurrak, begiak estaliak izan ditzake. Robotek aginduak itsu-itsu betetzen baitituzte.
3. Robotarekin ari garenean, gelako toki batean objektu bat utz dezakegu. Denon artean robota bertara heltzeko agindu segida egokia bilatuko dugu.